

FUNTSEZKO BALIABIABIDEAK:

Enpresa bat ondo joateko funtsezko baliabideak ezinbestekoak dira; bezeroengana iristeko, diru-sarrerak lortzeko..etb. Gure enpresan hiru baliabide erabili ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak.

Batetik, baliabide fisikoak ditugu. Lehenengo lau kideek lan egiteko bulego bat behar dugu; han bilerak, kontuak erabakiak hartu eta hornitzaileekin bilerak izango ditugu. Bigarrenik ordenagailua daukagu: gehienbat gure eskaerak kontrolatzeko eta antolatzeko erabiliko dugu. Azkenik gure produktua ekoizteko piezak behar ditugu. Hiru baliabide hauek adibide batzuk besterik ez dira, noski beste asko ere dauzkagu.

Bestetik, baliabide intelektualak ditugu. Gure kasuan bi pertsonak lehorgailua diseinatu egin dute, bi pertsona hauek ingenieritza ikasi dute eta; beraz, lehorgailua diseinatzerako orduan bere trebetasunak erabili dituzte ahalik eta produktu hobea sortzeko. Beste bi pertsonak enpresaren kontuak eta marketinga eraman dugu; batek ADE ikasi zuelako eta besteak Marketing ikasi zuelako. Ikusten den bezala, gure gaitasun guztiak konbinatuz produktu hau merkatura ateratzea lortu dugu.

Bukatzeko, finantza-baliabideak ditugu. Duela bi urte lauok genekien proiektu hau egin nahi genuela. Horregatik lanean jarri bakoitza gauza ezberdin batean: bi denda batean , batek klaseak ematen eta bestea zerbitzari bezala, enpresa txiki hau ireki ahal izateko. Bi urte beranduago lauok batera irabazitako dirua gure enpresan inbertitzen ari gara.

